

ELAk eta LABek Mahai Orokorrera itzultzeko exijitzen dute Jaurlaritzak erretira dezala lanaldia luzatzeko dekretua

JAURLARITZAN NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN DEFENTSAN MOBILIZATZEKO DEIALDIAK ELA, LAB, EILAS eta ESK SINDIKATUEK DEITUTA

Gaurko agerraldiaz ELA, LAB, EILAS eta ESK sindikatuok EAEko administrazio autonomikoko Mahai Orokorrean gertatzen ari den negoziazio kolektiboaren ukapenaren aurrean, eta enplegu suntsiketaren aurrean gure irakurketaren berri eman nahi dugu, baita mobilizatzeko egiten dugun deiaren berri luzatu ere.

Agerraldi hau egiten ari garelarik Mahai Orokorraren urte honetako bigarren bilerari hasiera ematen ari dira funtzio publikoko arduradunak. Hemen gauden sindikatuok ez dugu bilera horretan parterik hartuko, ez dugu parterik hartuko gela horretan itxuretatik haratago ez baitago ezeren ezelako negoziazorik.

Honez gero denok dakigu zein den Jaurlaritza honek bere menpeko langileen lan baldintzak negoziatzeko orduan erakutsi duen jarrera: inposizio eta dekretuena.

Hala, gobernu honek alde zuzenetik ezarritako lan baldintzen atzera-pasuei eusteaz gain (bajengatik osagarriak murriztu, soldata murrizketak, 2012ko paga kendu, ordezkapenak murriztu, adostutakoa ez betetzea ...) neurririk eta larriena ezarri du, alegia, lanaldia handitzearena, larriena ekarri duen lanpostuen suntsiketari begiratuta. Gainera soldata izozketa ere iragarri egin digute. Zein negoziazio mota egiten ari dira barruko bilera horretan? Zein negoziazio mota lanaldia, enplegua eta soldata gaiei buruz negoziatzea alde zuzenetik ezinezko egiten duena? Zein negoziazio mota akordioak eta hitzarmenak errespetatzen ez duenarekin? Itxurazko negoziazioa besterik ez; guk ez dugu horretan parterik hartuko.

Eta honez gero denok dakigu zein den Jaurlaritza honek oro har zerbitzu publikoekiko erakutsitako jarrera: inposizioz zerbitzu publikoetatik gero eta baliabide gehiago kentzearena alegia. Jaurlaritza, bata bestearen atzetik, zerbitzu publikoen sistema indargabetzen ari diren eta desagertze bidean jartzen ari diren neurri guztiak ezartzen ari da: berrordainketak, zerbitzu sozialen kartera are gehiago murriztea, urtez urte sortzen dugun aberastasunetik eta aurrekontu publikoetatik gero eta diru gutxiago bideratzea zerbitzu publikoen sistemara...

Jaurlaritzak, horrelako neurriak Espainiar Gobernuak behartuta ezartzen dituelako aitzakia erabiltzen du, baina aitzakia besterik ez da, azken batean Jaurlaritzak neurri hauek guztiak konpartitzen baititu. Guri behintzat, ez digu besterik erakutsi.

Beraz, hemen gauden sindikatuok mahai orokorraren antzezpen honen eta baita zerbitzu publikoetara zuzenduko diren aurrekontuen eztabaida parlamentarioaren testuinguruan, Eusko Jaurlaritzari eta Gasteizko Legebiltzarrean ordezkaritza duten alderdi politiko orori gure esparruan negoziazio kolektiborako eskubidea errespetatu dezala eta honako aldarrikapenak aintzat har ditzala exijitzen diogu:

1.- Enplegu publikoa sortzea:

- Aurrez negoziatutako eta esparru desberdinetan hitzartutako lanaldia errespetatzea. Martxoko dekretua berehala erretiratzea.
- Aldi baterako ezintasunean %100 berreskuratzea

- Langileen ordezkapena lehen egunetik hasita
- Lanpostu hutsak ez amortizatzea.
- Zerbitzu publikoen pribatizazioa amaitzea
- Enpresa eta sozietate publikoetan enplegurik ez suntsitzea
- Sistemaren beharrianen araberako enplegu-eskaintza publikoa
- Zerbitzu publiko guztietako beharrianak aztertzea, behar den arloetan langile aski jarriaz indartzeko; Lanbideren kasu zehatzean: gizarteko errealitateari erantzuteko behar beste postu finkatzea, inola ere ez egun daudenak baino gutxiago.

2.- Soldatak:

Erosteko ahalmena berreskuratzea

3.- Akordio eta hitzarmenak

Akordio eta hitzarmenak errespetatu eta betetzea, kanpoko esku-hartzerik eta aldebakarreko aldaketarik gabe.

Politika ekonomiko eta sozialen nahiz zerga-politikaren norabidea aldatzea eta jendartearen oinarriko beharrianak asetzeko politikak erabakitzea alderdi politikoen, parlamentuen eta gobernuen esku dago; guztiek zerbitzu publikoetako langileen ahotsa eta jendartearen beharrianak aintzat hartu behar dituzte, eta inposatutako marko juridikoa gainditzeko apustua egin, hau gehiengoaren aurkakoa izanik.

Dokumentu hau sinatzen dugun sindikatuok dei egiten diegu zerbitzu publikoetako langileei negozioazio kolektiboko eskubidea gure esparruan defenditzera, aldarrikapen hauek bere egitera, borrokara eta mobilizaziora.

Alde horretatik hemen gauden sindikatuok, ELA, LAB, STEE-EILAS eta ESKek dei egiten diegu zuzenean edo zeharka Mahai Orokorraren menpean dauden langile guztiei mobilizatzen. Hala, abenduaren 17an goizez lan zentroetan tokian toki erabakitako moldean mobilizatzen dei egiten dugu, baita arratsaldeko 18:30etan Bilbo, Gasteiz eta Donostian egingo ditugun manifestazioetan ere protesta egitera.

Jaurlaritzari eta alderdi politikoei, bestelako konfliktibitateko deialdiei aurre egiterik nahi ez badu, aldarrikapen eta protesta hauei jaramon egitera deitzen diegu.